

HERNANI kronika

2003 urtea
Apirilak 27
Igandea
Alea: 755
www.kronika.net

**'HIRE HIMALAYA' BIDEO ETA DIPOSITIBA EMALDIA BIHAR BITERIN
ALBERTO IÑURRATEGIREN ESKUTIK**

"Anaiaren oroitzapena eta mendiari buruzko nere gogoetak biltzen ditu emanaldiak"

■ Diapositiba eta bideo irudiak biltzen ditu emanaldiak, Koldo Izagirreren testua eta Alberto Iñurrategiren ahotsarekin ■ Hernanikoa azkenaurreko proiekzioa du Albertok lan honekin ■ Bihar, Biterin, 20:00etan.

ALBERTO Iñurrategi mendizale atxabaltarrak diapositiba eta bideo emanaldia emango du, bihar, Biteri kultur etxeen. Proiekzioak *Hire Himalaya* dauka izena, eta Alberto Iñurrategiren mendiari buruzko gogoetak eta Felix anaiari buruzko oroitzapenak kontatzen ditu. Testua Koldo Izagirrerena da baina, ahotsa Albertok berak jarriko dio.


10 urteko gogoetak

Hire Himalaya lana, gogoeta lan bat bezala definitzen du Albertok. Kronikari jakin arazi dionez, mendian biziutaren gogoeta eta anaiarekin biziutaren gogoeta agertzen dira emanaldian. "Himalaya-ko errepasun arina egiten dut, baina, gehienbat Felixen is-tripua eta geroko gogoetak kontatzen nahi ditut, eta anaiak eta biok mendia bizitzeko geneukan estiloa azaldu".

Emanaldiak irudiak, musika eta hitza dauzka. Irudi batzuk pelikula moduan eta beste batzuk diapositiba moduan proiektatuko dira, eta kontakizuna, Albertok berak egingo du, baina, Koldo Izagirreren testuarekin.

Abenduan presentatu

Hire Himalaya lanak, ikusentzunekoaz gain, liburua ere biltzen du (biak Koldo Izagirreren testua daukate). Lanaren aurkezpena abenduan egin zen Bilbon eta ordutik herri askotan izan da Alberto emanaldi honekin. Kronikari jakin arazi dionez, gustora dago emanaldiak jendearengan izan duen eraginarekin.



Alberto Iñurrategi da 14 'zortzimilakoak' igo dituen mendizale gaztea.

Gehienak hunkitura ateratzen dira proekziotik, Alberoren esanetan. Hori, gehienbat, sentipen gogorak kontatzen direlako izango dela dio atxabaltarrak: "proiekzioa mendian oinarritua izanagatik, ez du mendiaz bakanrik hitz egiten. Horregatik uztarte edonork ulertu lezakeela. Ez dago mendizale porrokatua izan beharrik".

Proiektu berririk ez
Hernaniko proiekzioa azken aurrekoia izango da eta azke-

na, Ordizian emango du 14 zortzimilakoak igo dituen atxabaltarrak. Aurrera begirako planei buruz galdeztuta, Albertok proiektu jakinik ez duela komentatu dio Kronikari: "emanaldi hau bukatzen ari naiz oraindik. Gero ikusiko dugu zer egin baina, oraingo, eskalada pixkat egin eta etxe inguruan ibiltzeko asmoa daukat".

Biteri kultur etxeen
Hire Himalaya bideo eta diapositiba emanaldia, bihar da, arratsaldeko 20:00etan, Biteri kultur etxeen.

Alberto Iñurrategi da 8.000 metrotik gorako 14 mendiak igo dituen mendizale gaztea. 33 urte zituenerako igoak zituen 14ak Albertok, eta gaztea izateaz gain, 14 zortzimilakoak igo dituzten 10 mendizaleetako bat da.

-1991an: Makalu (8.463 m)
-1992an: Everest (8.848 m)
-1994an: K2 (8.611 m)
-1995an: Cho Oyu (8.201 m)
Lhotse (8.516 m)
-1996an: Kangchenjunga (8.586 m)
Shisha Pangma (8.046 m)
Broad Peak (8.047 m)
-1998an: Dhaulagiri (8.167 m)
-1999an: Nanga Parbat (8.125 m)
-2000an: Manaslu (8.163 m) eta
Gasherbrum 2 (8.035 m)
-2001ean: Gasherbrum 1 (8.068 m)
-2002an: Annapurna (8.091 m)

Kiroldegiko taberna subastan dago

KIROLDEGIKO taberna subastan dago joan den osteguna ezkerro. Aurreko jabeek utzi zutenetik bi hilabete pasa dira, eta beharrezko tramiteak egin eta gero, atzo atera zuten subastara kiroldegiko arduradunek.

Taberna hartzeko interesa daukatenek maiatzaren 6a bitarte daukate aukera paperak presentatzeko. Eskatzen diren baldintza nagusiak honakoak dira: taberna hartzen duenak gutxienez urte baterako hartu beharko du; urtero 150 euroko hamar kuota ordaindu beharko ditu; eta utzi beharreko fidantza 6.000 eurokoa da.

Paperak presentatzeko edo informazioa eskuratzeko, kiroldegiko bulegoetatik pasa, astelehenetik ostiralerla, goiztan. □

■ ERRUGBIA

Kadeteak Euskadiko txapeldun, 18-12 irabazita

ERRUGBI taldeko kadeteak Euskadiko txapeldun dira, atzo finala 18-12 irabazi eta gero. Finala Atletiko San Sebastian taldearen kontra jokatu zuten eta nahiz eta hasieran galtzen joan, partidu buelta eman eta emaitzari eustea lortu zuten. Estatuko txapelketa 3 aste barru jokatu behar dute. □

ODOL EMAILEAK

Omenaldia gaur Hernanin

GIPUZKOAKO odol emaile elkarretek 103 odol emaile omentuko ditu gaur Hernanin. Omenaldia bazkalondoan izango da Etxeberria sagardotegian. □

ELORRABIKO ISTRIPUAREN 25 URTEURRENA

Bilera gaur

AURTEN betetzen dira 25 urte Elorrabin Zubia erori eta 6 lagun hil zirela. Haien aldeko omenaldia prestatzeko, bilera deitu dute gaur, 10:00etan Ibarluzen. □

www.kronika.net
kronika
Internet-en helbide berrian

Allianz
ASEGURUA
Agustin Ezponda
AGENTZIA
Telf.: 943 557 326
656 735 109

IKASTAROA LANGABETUENTZAT
INGLES: Publikoari atentzioa
-INEMek subentzionatua
209 ordu
Ordutegia: 9:00 -13:30
astelehenetik ostiraletarra
Hasiera: maiatzak 9
Bukaera: uztailak 15
Oindi kalea 1
HERNANI
943 333711
943 334227
urralde

Eguzki perfumeria
Eguzki
zure
denda
Kale Nagusia 45, Tel.: 943 551333

Eguzki perfumeria
Gure dendan,
behar dezuna
daukagu.

- Perfumeria
- Opariak
- Edertz gela
- Solariuma
- Ileapaindegia

IPARRA SUKALDEAK
Zikuñaga, 61 - lokala zbk. 7
Ibarluze poligonoa
Tel.: 943 55 67 60
Fax: 943 33 19 75
20120 Hernani

Argitaratzailea: Dobera Euskara Elkartea. Errredakzioa: argazkiak eta publizitatea: Hernani Komunikazioak. J.M.Irazu U. Agirre, E. Agirre eta A. Zerai. Egoitza: Larramendi 11. ☎: 943-330899. Faxa: 943-336306. Eposta: kronika@topagineta.com. Lege gordailua: SS-679/2000. ISSN 1576-8422.



Junta zaharreko eta berriko kideak, tartean Ongintza patronatuko burua dutela.

Jubilatuek junta aldaketako bazkaria izan zuten

■ Bazkarian junta zaharreko eta junta berriko kideak izan ziren eta gonbidatuen artean, Ongintza patronatuko burua, elkarteko kolaboratzaileak eta karta jokuetako sarituak.

JUBILATUEN etxeen junta aldaketa bazkaria izan zuten atzo eta 30 lagun inguru bildu ziren bertan. Oraintxe gutxi aldatu da junta Jubilatuetan, eta junta aldaketa gertatzen den guztietan bezala, bazkaria egin zuten junta zaharreko eta eskerrak eman eta berriari ongi etorri ofiziala egiteko. Bazkaritan izan ziren junta

zaharreko kideak eta junta berrikoak (tartean, Manolo Fernandez lehendakari berria).

Bazkalondoan Florian Martinek (urreko lehendakaria), Manolo Fernandezek (lehendakari berria) eta Gonbidatuen artean zen Imanol Beroitz Ongintza patronatuko buruak hitz egin zuten. Denek balorazio ona egin zuten aurreko

juntarena eta berria animatu zuten bere lanari gogoz ekiteko.

Karta saribanaketa

Jubilatuen etxeko karta-joku txapelketak bukatu berri dira eta saribanaketa egitea gelditzen da. Saribanaketa maiatzaren 1ean egingo da Jubilatu etxeen bertan. □

■ PELOTA - KRONIKA TXAPELKETA

Emaitzak konfirmatzeko

KRONIKA eskupelota txapelketako lehenengo fasea bukatuta dago baina, oraindik konfirmatzeko emaitza batzuk gelditzen dira. Emaitzak Kronikara deitura eman behar dira maiatzaren 11rako. Partiduren bateko emaitza falta bada, bi bikoteei 0 puntu jarriko zaizkie. □

54ko kintoek bazkaria dute datorren igandean

HERNANIKO 54ko kintoek (aurten 70 urte betetzen dituztenek) urteroko kinto bazkaria dute datorren igandean, maiatzak 3, Txantxangorri elkartean. Bazkarira apuntatzeko bi telefono hauetara deitu daiteke: 943-552961 (J.M. Arizkorreta) edo 943-551985 (J. Agustin Arrieta). □


■ FUTBOLA - GORENGO MAILA

Hernanik errukirik gabe egurtu zuen Gure Txokoa: 9-1

GORENGO taldeak hiru puntu garrantzitsu lortu zituen atzo, Berako Gure Txokoa taldeari 9-1 irabazita. Hernaniarrek ez zuten kontrariorik aurkitu aurrean, eta aukera aprobetxatuta, 9 gol egin zizkien beratarrei. Orain Hernani hobeto dago sailkapenean, ia maila galatzeko arriskurik gabe, eta denboraldia bukatzeko 5 partidu beserik gelditzen ez direla. □



Hernaniko mutilik zortzigarren gola sartuta.



XIX MUS TXAPELKETA ARBALAR TABERNA



ERREPESKAKO PARTIDAK
Apirlak 28, Astelehenak
Joxe - Axier / Joxe - Gerardo
Aitor - Peli / Juan Mari - Joxe Mari
Zulaika - Uria / Kolonbo - Txema
Niko - Paste / Josetxo - Pablo

Apirlak 29, Astearteak
Olano - Txema / Kano - Aitor
Intxaur. - Intxaur. / Ramon- Esteban
Gainza - Perren / Koldo - Axier
Koldo - Pablo / Egaña - Txiribi
Josu - Gorka / Gorka - German

Maiatzak 5, Astelehenak
Xarpa - Mitxelena / Iñaki - Loren
Koldo - Txuria / Javi - Txomin
Jerri - Amancio / Kaki - Txals
Ekaiza - Iker / Pitxurra - Salba
Libre: Andoni - Juanma



Bi ikasle parkeak zaintzeko dioten paperak banatzen.

Ikasleak herriko parkeak zaintzen

■ Ikastetxeetako 5garren mailako ikasleak ibili dira Hernaniko jardinetan gomendioak banatzen.

HERNANIKO Udaleko inguru departamendua parkeak zaintzeko *Hi! Hernani eta ingurumena* ekimena sortu du Hernaniko ikastetxeen. Herriko parke eta jardinetan paper batzuk banatu dizkiete ikasleek jendeari parkeak txukun edukitzear kontzientziatzeko. Hiru puntu nabarmenzen ditu banatutako idatziak:

- 1) Parkeetan ez zaigu txakur kakekin jolastea gustatzen. Mesedez txakurra baduzu bere hondakinak jaso itzazu.
 - 2) Landare eta loreak gure kaleak alaitzen dituzte, zain itzazu.
 - 3) Zakarrontziak erabili, ez bota zakarrik lurrera.
- Jendeak beste gomendioen bat eman nahi izanez gero tokia uzten du paperak eta Udaletxeen utzi behar da gero, horretarako jarritako buzoian. Jasotako paper guztiek zoz-

keta egiteko dute Udaletxean datorren asteartean, 12:30etan. Hernaniko 3 lorategietan gasatzeko 60 euroko bonoak zozketatuko dituzte. Ikasleen artean, berriz, 20 kamixeta zozketatuko dira.

80 bat ikasle

Parke eta jardinak zaintzeko ekimena ez da orain hasi. Hernaniko ikasleek loreak aldatuak dituzte ikasturtean zehar eta kartelak ere jarri dituzte, jardinak zaintza eskatzeko. Azkeneko ekintza hau 5garren mailako ikasleekin egin dute, ikastorduz kanpo. Ikasle horiek Landaretza gaia landu dute ikasturtean zehar. Antolatzialeak oso gustora daude erantzunarekin, maila horretan dauzen 150 ikasleetatik 80-k hartu baitute parte. □

ZINEA BITERIN

Sesio bakarra gaur

GANGSTER en New York pelikula botako dute gaur, Biterin kultur etxeen. Sesio bakarra izango da, 19:30etan. □

OIALUMEN DANTZALDIA

'Disko Top', gaur

OIALUME biltokian Disko Festa izango da gaur, *Disko Top*, emanaldiarekin. Arratsaldeko 19:30etan. □

I. URTEBETETZEA

Amparo Gorrotxategi Miranda

-Joaquin Pagolaren alarguna-

2002ko apirilaren 17an hil zen



Amparoren senitartekoek, ezagutu zenuten guztioi gonbidapena luzatzen dizuegu, bere heriotzaren lehenengo urteurrenean eskainiko diogun mezara etor zaitezten.

Oroigarri meza **gaur, igande, apirilak 27**, goizeko 11:00etan, Hernaniko San Joan Bataiatzailearen parrokan.

Hernanin 2003ko apirilaren 27an.

ZERBITZUAK

■ TELEFONOAK

- Taxiak: 943 550093
- Udaltzaingoa: 943 333288
- DYA: 943 464622
- Autobusak: 943 556662
- Anbulatorioa: 943 006666
- Jokalari anonimoak: 943 331103

■ FARMAZIAK

- Egunez: Aizpuru Latxunbe Berri 11 ☎ 943 336077
- Gauzez: Zatarain Andoain. Arteta z/g ☎ 943 290802

IRAGARKI MERKEAK

Esperimentzia duen pelukerak Hernani inguruan lan egingo luke. Deitu: 637 09 83 24

Martxan dagoen Pub bat traspatzen da Kardaberaz kalean. Deitu: 943 55 06 18

18-28 urte bitarteko mutil euskalduna behar dugu Hernaniko taberna batean lan egiteko. Interesatuek deitu: 943 55 26 46 - 658 750 896

Arotz profesionalak etxeen lan txikiak egingo lituzke Hernani inguruan. Behar badezu deitu: 656 78 64 15 (Kepa)